2026-11-13 / 919 ZENBAKIA / 22. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Udazkeneko Azoka, Goikoplazan

Larramendi Bazkunak antolatuta, eta Andoaingo Udalak lagunduta, egun osoko egitaraua iragarri dute / 7

AIURRI

Talka politikoa

Iruñea-Donostia bidegorria lotzeko azken tartea gatazka-iturri bilakatu da Urnietan / 8-9

Behobia-Donostian helmugara iritsi ziren Andoaingo eta Urnietako lasterkarien sailkapena / 12

Azaroak 29: asteburuan hasiko dira, boto eske, alderdi politikoak / 5

#A11 #A29
Aiurri.eus webgunean
• Argazkiak • Bideoak • Albisteak
Okm:
batzen gaituen distantzia

KOMUNITATEA

LA SALLE BERROZPE ANDOAIN

Bi apustu Lanbide Heziketan, enplegu eta prestakuntza aukera berriak irekitzeko

Lanbide Heziketa etorkizuneko lanean sartzeko atea da. La Salle Berrozpek bi lerro berri gehitu ditu ikasturte honetako eskaintzan: batetik, Elementu metalikoen fabrikazioa zikloa –oinarrizko gradua, ikastetxeak lehendik ematen duen Elektrizitatea eta Elektronika zikloari gehitzen zaiona– eta, bestetik, Fabrikazio mekanikoko mekanizazio- eta konformazio-prozedurak eta prozedura bereziak gauzatzea izeneko C graduko ziurtagiri profesionala.

Apustu horrek prestakuntza, laguntza eta lan-munduan txertatzea uztartzen ditu. Berriro prestakuntzari heltzeko premia duten gazteei erantzunak ematea da helburua, bai akreditazio profesionala lortu nahi duten langabeei, bai enplegua lortzeko bide praktikoago bati heldu nahi dioten ikasleei.

«Benetako aukerak eskaini nahi dizkiegu ibilbide oso desberdinak dituzten pertsonei. Lanbide-heziketari esker, eginez ikas daiteke, segurtasuna irabazi, eta lan-merkatuan sartzeko prestakuntza sendoa lortu», adierazi dute La Salle Berrozpetik.

Motibazioa berreskuratzeko oinarrizko gradua

Lehen lan-lerroak ikaslerik gazteenak ditu xede. La Salle Berrozpek oinarrizko beste gradu bat jarri du martxan: Elementu metalikoen fabrikazioa. Gradu horren bidez, premia jakin bat estali nahi da: bide praktiko eta profesionalizatzaile bat eskaintzea, beste modu batean ikasteko eta lantegian, praktikan eta laguntzan oinarritutako prestakuntzara itzultzeko beharra duten ikasleei. Ikasleen erantzunak premia hori berresten du. Elektrizitatea eta elektronika zikloko lehen mailan, 15 ikasle daude –plaza guztiak bete dira–, eta bigarren mailan, 11 ikasle. Elementu metalikoen fabrikazioa ziklo berriari dagokionez, 13 ikasle daude jada.

Oinarrizko graduak ikastetxeko prestakuntza eta enpresako egonaldiak uztartzen ditu. Enplegua berehala lortzea baino gehiago, aldez aurreko zerbait erabakigarria bilatzen du: ikasleek lan-ohiturak hartzea, konfiantza berreskuratzea eta erdi-mailako gradu batean ikasten jarraitu ahal izatea.

Lana lortzeko ziurtagiri profesionala

Bestalde, C gradu berrian, 20 plaza daude, langabeei zuzenduak nagusiki. Taldearen osaerari erreparatuta, askotarikoak dira aukera baten bila ari direnen profilak; izan ere, 25 urte inguruko gazteak badira ere nagusi, badaude prestakuntza- eta lan-ibilbide desberdinak dituzten 30 urtetik gorako pertsonak ere.

Prestakuntza 768 ordukoa izango da eta astelehenetik ostegunera emango da, 14:30etik 20:30era, 2027ko maiatzaren 28ra bitarte. Ondoren, enpresarekiko zuzeneko harremana iritsiko da: 172 orduko praktikak, ikasitakoa lanbide-ingurune batean aplikatzeko.

Lortutako akreditazioak errotze sozioformatiboa eskatzeko ere balio ahal izango du; bide bereziki garrantzitsua da, prestakuntzaren eta enpleguaren bidez euren egoera erregularizatzeko premia dutenentzat.

Bi apustu horiei esker, prestakuntza tekniko eta profesionalean duen zeregina indartzen du La Salle Berrozpek. Ideia hau dute abiapuntu bi prestakuntzek: Lanbide-heziketa ez da bide bakarra, adin, egoera eta behar desberdinetara egokitzen diren ibilbideen multzoa baizik.

Proposamenaren arabera, inklusiorako, enplegagarritasuna handitzeko eta inguruko enpresekin konektatzeko tresna da lanbide-prestakuntza. Prestakuntza hurbila eta praktikoa da, aukera berriak —pertsonalak, heziketakoak eta lanekoak— sortzera bideratua.

IRITZIA

TOPA OSASUN PUBLIKOAREN ALDEKO PLATAFORMA TOLOSALDEA

Osasun publikoaren alde borrokatzen jarraitzen dugu

Beste behin, TOPAtik, Tolosaldeko biztanleok gure osasun egoera ezagutzeko ditugun zailtasunak salatu nahi ditugu. Ez dakigu ezer, soilik zentro berria eraikitzeko epea luzatu dela, eta proposatzen duten osasun azpiegitura horrek ez dituela Tolosaldeko beharrak asetuko, hau da, Eskualdeko Ospitalea ez dela izango. Ekitaterik gabe jarraitzen dugu, herritarrek zein Tolosaldeari lotutako osasun profesionalek azpimarratzen duten bezala. Informazio gehiago nahi izanez gero, gure blogean Plan Funtzionala eta zentro berriari uko egiten dion Osasun-profesionalen komunikatua daude eskuragarri. Osasun mapan esperimentu bat izaten jarraitzen dugu. Eskualdeko Ospitale publikorik gabeko EAEko eskualde bakarra izaten jarraituko al dugu?

Obra proiektuaren lizitazioari auzi-errekurtsoa jarri zaio eta ez dakigu zer gertatuko den, beraz, horren atzerapenari buruzko informazioa exijitzen dugu. 2019tik, partekatzen eta babesten ez dugun proiektu bat atzeratzen ari dira Tolosaldean. Garbi daukagu: Tolosaldeko osasun arretaren kalitatea hobetzeko Eusko Jaurlaritzak duen plana ez da egokia eta, gure ustez, Asuncion Klinika publiko egitea izango litzateke aukera zuzena.

Bestalde, Donostialdea ESIrako trantsizioa nola egingo den jakin gabe jaraitzen dugu. Norengana jo ere ez dakigu, Tolosaldea ESIko gerenteak ez baitu gurekin elkartu izan nahi, haren arabera, ez baitu eskumenik gure galderei erantzuteko. Oraindik ez dakigu noiz eta zein egoeratan joan ahal izango garen Donostia Ospitalera.

Klinikako profesionalen egungo egoera zein den jakin gabe jarraitzen dugu, eta Tolosaldea ESlaren eta Donostialdea ESlaren arteko trantsizioaz arduratzen diren barne-medikuen konpetentziak zein diren ere ez da zehaztu.

Zein dira gerentearen eskumenak, galdera horiei erantzutea ez bada?

Osasun pribatuaren aldeko proposamenen aurrean, ezinbestekoa da osasun publiko duin baten defentsa egitea. Beste proiektu faraoniko batzuetara milioiak bideratzen diren bitartean, osasun publikoak geroz eta baliabide eskasagoak ditu. Zer nolako lehentasuna ematen dio Eusko Jaurlaritzak Osasun Publikoari?

Osasun publikoaren aldeko diskurtso politiko asko egiten badituzte ere, Osasungintza pribatizatzeko saiakera baten aurrean gaudela argi erakutsi dute, programatuta dagoen prozesu bat jarraitzen ari garela dirudi. Horren adibide gisa Bizkaian proposatu dituzten neurriak azpimarratu daitezke, non aseguru mediko pribatuei zerga-salbuespenak eskaintzeko ahaleginak egin diren, hau da, aseguru medikoek desgrabatzeko aukera izatea proposatu dute.

Osasun publikoaren alde borrokatzen jarraitzen dugula helarazi nahi diegu Tolosaldeko herritar guztiei. Eta La Asunción Klinikako langileen Enpresa Batzordeak deitutako manitestazioarekin bat egiten dugu.

Tolosaldean osasun arreta hobetzea lortu arte ez ditugu gure aldarrikapenak utziko.

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



Memoriaren eguna, Andoainen, Elkarbiziren eskutik

Gizarte eraikuntzarako oinarri partekatuak hizpide izan zituen Mikel Arregik bere adierazpenean



Mikel Arregi eta Mari Paz Artolazabal, lore-eskaintza egin berritan. AIURRI

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Euripean igaro zen Elkarbiziren ekitaldia, astearte iluntzean. Hitzordura EAJ-PNVko eta PSE-EEko ordezkaritza zabala hurbildu zen. Aterkipean, hizlari aritu zen Mikel Arregi. Kantuan, bestalde, Iñaki Eizmendi. Ohi bezala, lore-eskaintza egin zuten Lopez de Lacalle parkean eta bertan izan zen Mari Paz Artolazabal.

Mikel Arregiren hitzartzea

'Begiradak. Euskadin memoriaren gizarte eraikuntzarako oinarri partekatuak' 2022ko dokumentua hizpide izan zuen Arregik. Dokumentuaren egileak dira Josu Elespe eta Maria Jauregi ETAko biktimen senitartekoak, Axun Lasa torturen biktima eta GALen biktima baten ahizpa, eta Unai Belaustegi, Eider Landaberea eta Virginia López de Maturana historialariak. 9 puntutan laburbiltzen da:

1. Ahanzturarik gabeko etorkizuna.
2. Memoriadun etorkizuna.
3. Nork bere burua justifikatzea helburu duten kontakizunak gainditzea.
4. Iraganaren berrikuste kritikoa eta autokritikoa.
5. Egia.
6. Biktima guztien aitortza: memoriari buruzko politika publikoen ardatza.
7. Memoria pedagogikoa eta transmisio-betebeharra.
8. Memoria partekatua.
9. Bizikidetza demokratikorako memoria.



AIURRI

Zuhaitz-adarrak moztu dituzte

Astearen hasierako haizeteen ondorioz, Goikoplazan, San Martin Tours elizaren ondoko zuhaitz baten adarrak hautsi eta, oinezkoen artean sor zitekeen arriskua saiheste aldera, adar horiek moztera ekin zioten beharginek. Inguru hartako zuhaitzak ez daude, dena esatera, egoera onean. Berriki, hortxe bertan, zuhaitz bat kendu zuten.

AIURRI BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA
www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri: Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra: Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Lide Ruiz Telleria.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnieta).
Diseinua: Goiena / TOKIKOM.
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ
ALIATUAK: TOKIKOM
BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA: ANDOAINGO UDALA, Urnietako udala
DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA: Gipuzkoako Foru Aldundia, Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza; EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO, KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
BABESLEAK: **Aiurriko harpidedunak** ezinbestekoak dira.

AIURRIk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

GIPUZKOA
Foru Aldundia
Babestutako hedabidea

KOMUNITATEA

GARAPEN AGENTZIA BETERRI-BURUNTZA

Karbono-aztarna eta ESG irizpideak, merkatu eta erakundeen eskakizun eta betebehar berriei aurre egiteko tresnak, lurraldeko enpresen eskura

Ekonomiaren mundu globalizatu eta lehiakor honetan, gero eta gehiago dira enpresa eta negozioek euren eguneroko jardunean topatzen dituzten exijentzia eta betebeharrak, bezeroen nahi eta erantzukizun sozialetatik eratorritakoak batzuk, derrigor betebeharreko legediek inposatutakoak besteak. Bide malkartsu hauetan topa ditzaketen oztopoei aurre hartu eta gainditzen laguntzeko, Beterri-Buruntza Mankomunitateak zenbait tresna jarri ditu lurraldeko enpresen eskura, tartean Karbono-aztarnaren kalkulua eta ESG irizpideak.

Oraindik ere erabat garatu gabe dagoen arren, karbono-aztarnaren kalkulua eta erregistroa arautzen duen legedia nabarmen zorroztu da azken urteotan, bai Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), bai espainiar Estatuan eta bereziki Europar Batasunean. 2050erako neutraltasun klimatikoa lortzeko bidean, helburu nagusia enpresek eta administrazio publikoek euren berotegi-efektuko gasen (BEG) isuriak neurtzea, murriztea eta konpentsatzea da eta, bide horretan, neurri eta betebehar gero eta zorrotzagoak aurreikusten dira. Etor daitekeenaren aurrean prest egoteko, Beterri Buruntza Mankomunitateak, beren Karbono Azterketaren kalkulua egiteko modua ematen die lurraldeko enpresei. Programak enpresaren jarduerak sortzen dituen berotegi-efektuko gasen emisioak ezagutzeko eta murrizketa-neurriak identifikatzeko aukera ematen du, hobekuntza aukerak identifikatu eta, aldi berean, ingurumenarekiko konpromisoa indartu eta lehiakortasuna hobetzen du gero kontzienteago diren bezeroen aurrean.



Beterri-Buruntza Mankomunitateak zenbait tresna jarri ditu lurraldeko enpresen eskura, tartean Karbono-aztarnaren kalkulua eta ESG irizpideak. GARAPEN AGENTZIA

Ildo horretatik, ESG siglak (Ingurumena, Gizartea eta Gobernantza), kontzeptu ezezagun bat izatetik, bezeroentzat, langileentzat eta inbertitzaileentzat irizpide erabakigarria izatera igaro dira. “Moda” huts bat izatetik urrun, irizpide hauek enpresak baloratzeko modua eraldatzen ari dira. Gaur egungo testuinguruan –klima-aldaketa, gizarte-desberdintasunen hazkundea eta gardentasun handiagoaren eskaria– gero eta garrantzitsuagoa da enpresek modu arduratsu, lehiakor eta jasangarrian jardutea eta Beterri-Buruntza Mankomunitateak eskaintzen duen ESG diagnostiko eta ekintza planak horretarako laguntza eskaintzen du.

Doakoa den programa honetan parte hartzen duten enpresek beren erakundearen ESG diagnostikoa eskuratuko dute. Era berean, materialtasun-analisiaren bidez, gai estrategikoak identifikatu ahal izango dituzte, helburu zehatzak, epeak eta jarraipen-adierazleak bilduko dituen ekintza-plan pertsonalizatu bat eskuratuko dituzte eta aholkularitza teknikoa eta jarraipena izango dituzte prozesu osoan zehar.

Bestelakorik eman dezakeen arren, ESG ez da enpresa handiei mugaturiko zerbait, ez delako ez garestia ez konplikatua eta onurak handiak izan daitezke; bere baitan hartutako ekintza askok aurrezkia sor dezakete (energia, baliabide-eraginkortasuna) eta enpresaren izen ona hobetzen dute, pertsonak zaintzea, etika eta gobernantza ona ere barnean hartzen dituelako.

Bi programa hauek, ordea, ez dira Beterri-Buruntza Mankomunitateak lurraldeko enpresa eta negozioentzat martxan dituen programa bakarrak. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, Eskualdeak egitasmoaren baitan, aurrekoez harago, besteak beste, Barne-ekintzailetza – enpresek negozio ideia berriak identifikatu eta aukera berrietan gauzatzeko ekimena– eta Lanaren zentzua –pertsonak enpresaren erdigunean jartzeko jardunbidea– ere jorratzen ditu. Helburua guztietan bera da, ingurumen arlotik, ekonomikotik eta sozialetik,

Beterri-Buruntza gero eta lehiakorragoa sortzea, lurraldeko enpresa eta negozioen eskutik.



Zumea plazan taldeko argazkia atera zuten asteazken goizean. AIURRI

Etxebizitza-eskubidearen aldeko eta espekulazioaren aurkako greba

Asteazken arratsaldean elkarretaratzea egin zuten Urnietan; manifestazioa, Andoaingo kaleetan

Erredakzioa ANDOAIN

Goizean hasita, greba deialdiak jarraipena izan zuen herriotan. Bizitokiaren premiari kolektiboki defendatzeko deia egin zuten deitzaileek, herriz herri egindako adierazpenetan: "Etxebizitzaren arazoa pairatzen duen orori argi esan nahi diogu: ez sentitu lotsarik edo errurik; antolatzea eta borrokatzea dira tresnarik onenak. Langile-klase antolatu eta indartsua behar dugu. Bai eskuineko balizko gobernu batek ekar dezakeen eskubideen atzerakadari aurre egiteko, bai ezkerreko gobernuak eman nahi izan ez dituen aurrerapausoak lortzeko. Antolakuntzaren eta borrokaren bidez soilik lor daitezke gauza handiak".



N1 errepidean piketeak, Bazkardoko zubian, asteazken goizaldean. GREBA KOMITEA



Grebaren aldeko mezua, Andoaingo Kale Nagusian. AIURRI

AZAROAK 29 | HAUTESKUNDEAK

JON ANDER UBEDA AIURRI

Asteburuan hasiko dira, boto eske, alderdi politikoak



Boto zenbaketa Andoaingo Arrate pilotalekuan, 2024ko udaberrian. AIURRI

ANDOAIN

BOTUEMAILEAK

2023 - Espainiako Kongresua	**7142**
2019 - Espainiako Kongresua	**7402**
2016 - Espainiako Kongresua	**7388**
2023 - Udal hauteskundeak	**6554**
2019 - Udal hauteskundeak	**7397**
2015 - Udal hauteskundeak	**7247**
2024 - Europar Batasuna	**5353**
2024 - Eusko Legebiltzarra	**6540**

BOZKATUENA

2023 - Espainiako Kongresua	**EH Bildu**
2019 - Espainiako Kongresua	**EH Bildu**
2016 - Espainiako Kongresua	**Podemos**
2023 - Udal hauteskundeak	**EH Bildu**
2019 - Udal hauteskundeak	**EH Bildu**
2015 - Udal hauteskundeak	**EH Bildu**
2024 - Europar Batasuna	**EH Bildu**
2024 - Eusko Legebiltzarra	**EH Bildu**

URNIETA

BOTUEMAILEAK

2023 - Espainiako Kongresua	**3057**
2019 - Espainiako Kongresua	**3175**
2016 - Espainiako Kongresua	**2902**
2023 - Udal hauteskundeak	**2634**
2019 - Udal hauteskundeak	**3075**
2015 - Udal hauteskundeak	**2898**
2024 - Europar Batasuna	**2167**
2024 - Eusko Legebiltzarra	**2774**

BOZKATUENA

2023 - Espainiako Kongresua	**EH Bildu**
2019 - Espainiako Kongresua	**EAJ-PNV**
2016 - Espainiako Kongresua	**Podemos**
2023 - Udal hauteskundeak	**EAJ-PNV**
2019 - Udal hauteskundeak	**EAJ-PNV**
2015 - Udal hauteskundeak	**EAJ-PNV**
2024 - Europar Batasuna	**EH Bildu**
2024 - Eusko Legebiltzarra	**EH Bildu**

Ostiral honetan, gauerdiko 00:00etan, hasiera emango diote Espainiako Kongresua eta Senatua berritzeko hauteskunde kanpainari. 15 egun iraungo du, azaroaren 27ko gauerdira arte.

Asteburuan hasita, beraz, alderdi politikoen afitxak eta hautagaien argazkiak ikusiko ditugu gure herrietan. Ez baitira faltako, erratza eta kola hartuta, kartelak itsasten aritu direnen lekukotza grafikoa. 2026ra iritsita, EH Bildu, PSE-EE eta EAJ-PNV alderdiak dira bi udalerrietan boto gehien jasoko dituzten alderdiak eta, ziurrenik, hiru horien iruditeria nabarmenduko da datozen egunetan. Gainerako alderdien boto-intentzioa eta ahalmena, hilaren 29ko bozei begira, askoz apalagoa baita.

350 diputatuk osatzen dute Espainiako Kongresua eta horietatik 6 gipuzkoarren botoekin aukeratuko dira. Senatuari dagokionez, 209 dira eta Gipuzkoakoak 4 izango dira.

Egunotako arreta-gunea udalen webguneetan izan da, hara jo baitute bizilagunek hauteslekuan egoteko hautatuak izan diren ala ez egiaztatzera. Dibertimendua izan da gehienentzat, aldiz, hautatuak izan direnentzat, biraoka edo *mekaguenka* erreakzionatzeko unea. Inork ez baitu egun horretan bozketa zaintzen eta botoak zenbatzen egon nahi.

Bi ganbera direnez, bi bozketa izango dira azaroaren 29an. Eta, adi, ñabardura esanguratsuak baitaude bozketa batetik bestera. Kongresurako hauteskundeetan, boto-

KONGRESUA: ALDERDI POLITIKOEK ZERRENDA ITXIETAN AURKEZTEN DITUZTE HAUTAGAIAK

txartelak zuriak dira eta alderdi politikoek zerrenda itxietan aurkezten dituzte hautagaiak. Alderdia da bozkatzen dena.

Senaturako boto-txartelak sepia kolorekoak dira eta, aldiz, bozketa-sistema irekiagoa da. Izan ere, hauteskunde-barruti bakoitzera aurkezten diren alderdi guztietako hautagai guztien artean hiru aukeratu daitezke. Izan daiteke alderdi politiko bakoitzeko hautagai bana.

Boto-paperak Espainiako Gobernuaren ordezkaritzak egiten ditu, eta udal guztiei helarazten dizkiete.

Partaidetza eta joera

Azken hamarkadako botu-emaileen lagina aintzat hartuz gero, bada detaile deigarria: Andoaingo eta Urnietako herrikideen partaidetza handiena Espainiako Kongresuko bozetan ematen da. Udal hauteskundeetan baino gehiago. Eta Eusko Legebiltzarrerako eta Europar Batasunerako baino askoz gehiago. Harrigarria dirudien arren, gertuko administrazioarena baino interes gehiago pizten du estatu mailako deialdiak.

Botu-emaileen joerari dagokionez, hauteskundez hauteskunde, abertzaletasuna gehiengo da Andoainen eta Urnietan. Hegemonikoa da EH Bildu Andoainen eta, EAJ-PNV, Urnietan. Baina, kasu, azken hamar urteotan egon dira nagusitasun hori aldarazi duten deialdiak. Espainiako Kongresuko bozetan, 2016an, Podemos izan zen irabazlea Andoainen

SENATUA: ALDERDI GUZTIETAKO HAUTAGAI GUZTIEN ARTEAN HIRU AUKERATU DAITEZKE

eta Urnietan. 2023an, aldiz, EH Bildu izan zen bozkatuena. Gauza bera gertatu zen azken bi deialdietan, biak, 2024an: Eusko Legebiltzarrerako eta Europar Batasuneko hauteskundeetan koalizio subiranista gailendu zen.

2025ean ez da hauteskunderik izan eta datozen 6 hilabeteetan 2 deialdi izango ditugu: hilabete amaieran, Kongresukoak; 2027ko maiatzean, Udal hauteskundeak. Partaidetzari eta joerari buruzko mugarri berriak zehaztuko dira etorkizun hurbilean. Lehen hitzordua hilabete honetan da, hilaren 29an. Bitartean, alderdi politiko bakoitzak bere matrakari helduko dio. Aldaketa bakarrarekin: oraingoan, bai, "emaidazu botoa" adieraztera baimenduta daude. Gainerakoan, aurre-kanpainaren antza handia izango du kanpainak.

"Eskola publiko bakarra denontzat"

Ondarreta Herri Eskolak eta Leizaran institutoak Harro plataformarekin batera, topaketa egin zuten Basteron, joan den larunbatean. "Andoainen hezkuntza segregazioa gertazenari" dela salatu zuten. Datorren Aiurri astekarian jardunaldiaren kronika, luze eta zabal.



AIURRI



Aita Larramendi kaleko 5 eta 7 zenbakiak. AIURRI



Hoditeria konpontzeari ekin zioten berehala. AIURRI



Zaintzapean da animalia. HAMAIRU KATU

Aita Larramendi kaleko 5 eta 7 eraikinak eraisteko lanak

Astelehen goizean amiantoaren aurkako pozedurari ekin zioten, eraisketarekin hasi aurretik

Erredakzioa ANDOAIN

Etxeberrieta auzoan, Aita Larramendi kaleko 5 eta 7 zenbakiak historiara pasatzear dira. Astelehen goizean Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren zaintzapean egin ziren lehen jarduerak. Hasteko, oso baldintza kaskarretan daude eraikinak, ordenazioz kanpo, baina oraindik baziren hainbat pertsona bertan. Handik atera eta amiantoaren aurkako prozedurari ekin zioten gero. Gauzak horrela, eraikin zaharrak botatzea denbora kontua da. Iazko abenduan eremu berean eraitsitako etxe-multzoen jarraipena da oraingoa.



Kale bera, atzealdetik ateratako argazkian. AIURRI

Trafikoan eragin handia izan du Karrikan lehertutako hodiak

Azaroaren 4an errepidearen azpitik doan ur hoditeria lehertu zen. Berehala ekin zieten konponketa-lanei

Erredakzioa ANDOAIN

Karrika auzoan, Aiztondo kaletik gertu, hoditeriaren leherketak ur isuri nabarmena eragin zuen. Eta, hori gutxi balitz, errepidea nabarmen matxuratu zen. Lehen unean Udaltzaingoak eta Udal brigadak trafikoa bideratu eta kalteen lehen azterketa egin zuten. Gerora, Gipuzkoako Foru Aldundiak konponketa-lanei ekin diete. Bitartean, trafikoan, eragin nabarmena izan zuen matxurak. Arin egin zituzten konponketa lanak eta astearte arratsalderako trafikoa berrezarri zuten. Sei eguneko epealdian egin da lana.



Azaroaren 4an, hodia lehertu eta minutu gutxira. AIURRI

Zaintzapean da makilkadez jipoitutako zakurra

Erredakzioa ANDOAIN

Aurreko astean zabaldu zen bideoan adin txikiko pertsona bat ageri da txakur bat bortizki erasotzen. Irudiak Aita Larramendi kalearen atzealdean grabatuta daude. Zalaparta eragin zuen gertaerak eta Hamairu Katu elkarteak agiria zabaldu zuen: "Andoaingo Udaltzaingoarekin hitz egin berri dugu eta zakurra zaintzapean dutela baieztatu digute. Une honetan, animaliak biltzeko zerbitzuaren esku dago. Hortik aurrera, agintari judizialen esku geratuko da, dagozkion neurriak har daitezen. Horregatik, lasaitasuna eskatzen dugu. Oso ondo ulertzen dugu bideo horrek sortu duen amorrua, haserrea eta ezintasuna, baina orain garrantzitsua da dagokion prozedura jarraitzea".



Udazkeneko Azokaren edizio berria antolatu du Larramendi Bazkunak. AIURRI

Udazkeneko azoka bertan da

Larunbat honetan askotariko produktuak erosteko aukera izango da Goikoplazan. Egun osoko ospakizuna izango da, kultur jarduerekin osatuko dena. "Andoaingo euskera, bihotzetik kalera" kanpainaren baitan antolatu du Larramendi Bazkunak

Erredakzioa ANDOAIN

Udazkeneko azokaren edizio berria antolatu du Andoaingo euskara elkarteak. Goizean hasita, askotariko produktuen postuak jarriko dituzte: olio ekologikoa, marmeladak, barazki-kontserbak, kremak, almendrak, euskal pastela, behi eta ardi gazta, Euskal Herri osoko ardoak eta artisautzazko garargardoak... aukera zabala izango da Goikoplazan jarriko dituzten dozenatik gora postuetan. Badira hainbat urte azoka antolatzen dabilela Larramendi Bazkuna eta, aurtengoak ere, egitarau oparoa izango du. Ez baita salerosketa hutsa izango. Elkartzeko gune bat izango da eta jendarteak tarte atsegina igarotzeko aukera asko izango du: bazkaria, toka txapelketa, bingo musikatua, erromeria... egun osoko ospakizuna izango da.

Egitaraua

11:00-14:00 Euskal Herriko ekoizpena: ardoa, garagardoa, gazta, olioa, kontserbak...

11:00-13:30 Trena. Goikoplazatik abiatuta, herrian barna bidaia.

11:30-13:30 Puzzle lehiaketa. Izenematea aldez aurretik egin behar da.

14:30 Paella bazkaria. Bazkalostean Arrutik egindako "kremazko enborra".

16:30 Toka txapelketa.

17:00 Yogurinha Borovarekin bingo musikatua.

18:30 Auskalo erromeria taldea.

ASKOTARIKO PRODUKTUEN POSTUAK JARRIKO DITUZTE GOIKOPLAZAN

Euskal Herri osoko ekoizleak elkartuko dira Goikoplazan

Edariei dagokienez, Nafarroako Irunberri herriko Bodegas Azpea, Bargotako Biurko Gorri, Bardeetako Bardea Etxaldea, Baztango Xurie eta Arabako Garcia Huizi. Aritsautzazko garagardoak ere ez dira faltako: hasteko, Iker Etxebeste andoaindarraren Karom markadun edaria dastatu ahal izango da. Eta baita Goierriko Basabe Garagardoak, Gasteizko Scimmia eta Zumaiako Brewery Land markak.

Gaztagileak bi izango dira: Nafarroako Antsonea ardi gazta eta Goierriko Behieko behi gazta. Lapurdiko Uztaritze Arrastia Gâteaux Basques gozogileak ere bertan izango dira. Eta, jakiei dagokionez, honakoak: Bardea Etxalde, Gukale ekoizle agroekologikoa eta Bejondeizula barazkiak. Aukera, zinez, ederra.

Egun osoko ospakizuna



Geroz eta gehiago dira puzzle lehiaketak Euskal Herrian. GUKA

Puzzle lehiaketa Goizeko 11:30ean hasita, Goikoplazan, puzzle lehiaketa. Bi adin-talde izango dira, eta irabazleentzat sariak egongo dira. Bakarka edo bikoteka eman daiteke izena. Puzzleak osatzeko gehienez bi orduko epealdia izango da.



Goizean Goikoplaza-Kale Nagusia artean ibiliko da txu-txu trena. AIURRI

Txu txu trena Ospakizunetan ohikoa izan ohi da trenaren agerpena. Larunbat honetan, Goikoplaza eta herrigunearen artean, kalean gora eta behera ibiliko da. Ez ohiko garraiobideak interes handia piztu ohi du jendartean.



Yogurina Borova. BOROVA

Bingo musikatua Urrutira joan gabe, abuztuan, Buruntzako jaietan, gozamen hutsa izan zen bingo musikatua. Larunbat honetan eskarmentu handia duen Yogurina Borova artistak gidatuko du hitzordua. Atsegina bezain dibertigarria izango da.



Biribilgunetik gertu igaroko litzateke bidegorria, Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Sailaren egitasmoa aurrera aterako balitz. EAJ eta EH Bildu aurka daude. AIURRI

Talka politikoa, ordezkaritza duten alderdien artean

Iruñea eta Donostia elkar lotzeko bidegorri sarea amaitzear da eta, soilik, Urnietako Irurain gaineko ibilbidea osatzea falta da. Gipuzkoako Foru Aldundiarena da eskumena baina Urnietako alderdi politikoen arteko eztabaida ez da amaitu

Jon Ander Ubeda URNIETA

Plazaolaren ibilbidea, udalerrian barrena, gatazka-iturri bilakatu da. Hiru alderen arteko sestran murgilduta gaude azken hilabeteotan. Epizentroa Urnietan dago, eta bi erakunderi eragiten dio: Udalari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari. EAJ-PNVk, EH Bilduk eta PSE-EEk hilabeteak daramate elkarri akusazioak eginez, eta, oraingoz, ez da inor kalterik gabe atera. Denek erabiltzen dituzte euren aldeko argudioak eta, era berean, aurkarien kritikak jasotzen ari dira.

"Arazoa ez da teknikoa, politikoa baizik", dio alderdi jeltzaleak. Ez da ohikoa horrelako adierazpen publikoa egitea. Izan ere, EAJ-PNVk eta PSE-EEk osatzen dute udal-gobernua, baina ez datoz bat gai honetan.

PSE-EEk Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun Departamentuari aitortzen dio lidergotza. Eurena baita eskumena: ardura politikoa Jose Ignacio Asensio diputatu sozialistarena da. Irizpide teknikoak eta lanketa profesionalak aintzat hartzea eskatu zuen Herme Gonzalezek ekaineko batzarraldian: “mugikortasuna hobetu nahi dugu eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egitasmoaren alde gaude. Lehenago, beste alternatiba batzuk baztertu dira eta, hona iritsita, segurtasuna eta planifikazio ona egitea eskatzen dugu”. Alderdi abertzaleek babestu zuten mozioaren aurrean, irizpide politikoak teknikoen gainetik jartzea ez dela zuzenena adierazi zuen sozialisten bozeramaileak.

Urnietako EAJ-PNVk, ordea, ez du proiektu hori babesten, eta negoziaziorako bide bat irekitzen saiatzen ari da Aldundiko beste departamentu baten bidez. Hots, Bide Azpiegiturako Sailarekin. EAJ-PNVren esku dagoena eta Felix Urkola diputatuak zuzentzen duena.

Esan bezala, gatazka hirutara bizitzen ari gara. Izan ere, EH Bildu ere tematia ari da auzi honetan. Bai Udalean bai Batzar Nagusian, sozialistek aurrera eraman nahi duten proiektuaren aurka agertu da EH Bildu, eta mozioen bidez foru erakundeari atzera egiteko eskatu dio. Bidean, EAJ-PNVri aurpegiratzen dio Urnietako Udalean jarrera bat defendatzea eta, aldi berean, Batzar Nagusietan bestelakoa bozkatzea. Koherentzia eskatzen dio alderdi jeltzaleari: "EH Bilduk koherentzia eta erantzukizuna eskatu ditu erakundeen jardunean, herritarren interesak eta udalbatzan adostutako erabakiak Gipuzkoako erakundeetan ere kontuan har daitezen". Adierazpen hori ez da jeltzaleen gustukoa izan. Duela bi aste egindako azken osoko bilkuran, Jorge Segurado alkateak erantzun egin zion EH Bilduko Euken Garmendiari, ahotsa nabarmen goratuz. Seguradoren esanetan, Urnietako EAJ-PNVk eta EH Bilduk herrian defendatzen duten proiektua aurrera ateratzeko bitartekaritza-lanak egiten ari da. Zehazki, bere sokako diputatuaren bitartekaritza-lana eskatuz.

Indar abertzaleak, auzi honetan, ideia beretsua defendatzen ari dira, baina estrategia desberdinarekin.

Bitartean, Asensio sozialistak defendatzen duen proiektuak bere bidea egiten jarraitzen du, aurreikusitako faseak betez.

"SEGURTASUNA ETA PLANIFIKAZIO ONA EGITEA ESKATZEN DUGU"

PSE-EE

"KOHERENTZIA ESKATZEN DUGU ERAKUNDEEN JARDUNEAN"

EH BILDU

"ALKATEA KUDEAKETA ETA NEGOZIAKETA POLITIKOAN ARI DA LANEAN"

EAJ-PNV

IRITZIA

EH BILDU URNIETA

Alderdien interesak urnietarren interesen gainetik

EAJ-PNVk Gipuzkoako Batzar Nagusietako Jasangarritasun batzordean Urnietako Udalak Plazaolako proiektuaren inguruan hartutako erabakiaren aurka egin du, udal-mailan erabaki hori babestu ondoren.

Izan ere, ekainaren 25ean egindako Urnietako Udalbatzan, EAJk aurkeztutako mozio bat onartu zen, EAJren eta EH Bilduren aldeko botoekin. Mozio horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiari hainbat eskaera helaraztea adostu zen, Plazaolako ibilbidearen proiektuari buruzko kezkei erantzuteko.

Zehazki, Udalak Foru Aldundiari eskatu zion onartutako proiektua berriz aztertzeko eta proiektua kautelaz geldiarazteko. Era berean, Urnietako Udalarekin lankidetzan, ibilbidearen balio historikoa kontuan hartuko duen trazadura berri bat egiteko eskatu zuen, Plazaolaren trazaduraren memoria errespetatzeko eta herritarren benetako beharretara egokitzeko. Horrez gain, erabiltzaileen segurtasuna bermatzea eta hautemandako arrisku-puntuak kentzea jarri ziren helburu.

Hala ere, gai hori Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzordera eraman denean, EAJk udal-erabaki horren aurka egin du. EH Bilduren ustez, jarrera horrek agerian uzten du erakunde batean hartutako erabakiaren eta beste batean defendatutako jarreraren arteko kontraesana.

EH Bildurentzat, funtsezkoa da Plazaolako proiektuaren etorkizuna lantzerakoan ibilbidearen ondare historikoa, herritarren beharrak eta erabiltzaileen segurtasuna kontuan hartzea. Horregatik, Urnietako Udalak hartutako erabakia errespetatzea eta bertan jasotako eskaerei erantzutea aldarrikatzen du.

EH Bilduk koherentzia eta erantzukizuna eskatu ditu erakundeen jardunean, herritarren interesak eta Udalbatzan adostutako erabakiak Gipuzkoako erakundeetan ere kontuan har daitezen. Kasu honetan Urnietako alkate Jorge Seguradok urnietarren interesen alde baino alderdiaren interesen alde egitea salatu du talde subiranistak.

IRITZIA

EAJ-PNV URNIETA

Posible da urnietarrentzat trazatu egokiagoa lantzea

EAJ-PNVren posizioa argia da: ez gatoz bat Jasangarritasun sailak aurrera eraman nahi duen bide berdearen trazatuarekin. Ez gatoz bat Gipuzkoako Batzar Nagusietan onartutako ebazpenarekin. Besteak beste, entzungor egiten diolako Urnietako Udalbatzaren gehiengoari eta Urnietako herriari.

EAJ-PNVren ustez, Jasangarritasun saila sustatzen ari den Urnieta-Andoain lotzeko proposamenak eragozpen handiak ditu segurtasunari, funtzionaltasunari eta udalerriko ondare historikoaren kontserbazioari dagokienez.

Trazatu honek hainbat errepide-bidegurutze aurreikusten ditu, eta horiek arrisku handia dakarte erabiltzaileen segurtasunerako, bai oinezkoentzat, bai txirrindularientzat. Gure ustez, puntu hori bereziki arriskutsua izan daiteke, bai bizikleta-bidea erabiliko dutenentzat, bai GI-3722 errepidetik zirkulatzen duten ibilgailuentzat.

Jasangarritasun sailak ez ditu kontutan hartu Urnietako udal ordezkariok aho batez aurkeztu genituen alegazio teknikoak; eta ekidin daitezkeen arrisku-gune bat sortzen du.

Batzar Nagusietan eman diren bozketa-logiketatik haratago, zeinetan koalizio gobernuko kideek ezin dezaketen oztopatu elkarren arteko ekimenak, EAJ-PNVren posizioa argia da: Uste dugu badagoela beste trazatu alternatibo bat lantzeko aukerarik.

Horregatik, adierazpen politikoetatik haratago, Jorge Segurado Urnietako alkatea zuzenean kudeaketa eta negoziaketa politikoan ari da; kasu honetan, EAJ-PNVk gidatzen duen Bide-Azpiegitura sailarekin, gune horretarako baliagarria izan daitekeen alternatiba berri bat aztertzeko.

Arazoa ez da teknikoa, politikoa baizik. Ulertzen dugu ez dela behar bezalako partaidetza eta kontsula prozesurik burutu. Borondatea baldin badago, posible da urnietarrentzat trazatu egokiagoa lantzea. Horretarako, EAJ-PNVtik eskuartean dituen aukera guztiak baliatuko dira, Urnietako udalbatzaren erabakia muturreraino defendatzeko; eta alferrikako arrisku-guneak ekiditeko.



Asensio (PSE-EE). GFA

Bi lansail, aurrez aurre

Afera honetan Gipuzkoako Foru Aldundiko bi lansail aurrez aurre jar daitezke: PSE-EEren esku dagoen Jasangarritasuna eta EAJ-PNVren esku dagoen Bide Azpiegiturena.



Urkola (EAJ-PNV). GFA

2026a, eztabaidaren urtea

Amaitzekoak dira Urnieta eta Lasarte-Oria arteko loturen obrak, oinezkoentzat eta bizikletentzat baliagarria. Beraz, Urnieta eta Andoain arteko tartea geratuko litzateke egiteko. Irurain gainaren eta H10 hotelaren arteko zatia, ordea, eztabaidaiturri da.

2026/02/03
Foru Aldundiko Jasangarritasun departamenduak, urtarrilaren 28ko Foru Aginduaren bitartez, Lasarte-Urnieta tartea eta Irurain-Andoaingo gaina dagoeneko eraikita dagoen zatia lotzen dituen bizikleta eta oinezkoentzako bidea eraikitzeko proiektuaren berri eman zuen.

2026/02/26
EH Bilduk mozio bidez Foru Aldundiari "esku hartze urgentea" egitea eskatzen zion mozioa aurkeztu zuen udaletxean.

2026/06/03
Jasangarritasun departamenduak, GAOren bitartez, bizikleta eta oinezkoentzako bidea eraikitzeko proiektua onesten duela jakinarazten du. Kalapiek eta Urnietako Udalak aurkeztutako alegazio garrantzitsuenak ezeztatzen ditu, era berean.

2026/06/25
Mozio bidez, EAJ-PNVren eta EH Bilduren aldeko botoekin eta PSE-EEren aurkako botoekin, Ingurumen Departamentuak proposatutako ibilbidearen horren aurka azaltzen da Urnietako Udala. Funtsean, egitsmoak ez diolako Urnietako beharrei erantzuten, eta ez duelako Plazaolako ibilbide historikoa kontuan hartzen. Eta baita oinezkoentzat eta txirrinduzaleentzat arriskutsuak diren bidegurutzeak planteatzen direlako.

gipuzkoa BATZAR NAGUSIAK

2026/07/03
EH Bilduk Gipuzkoako Batzar Nagusietan aurkezten du proposamena Jasangarritasun Batzordean eztabaidatua izan dadin. Aurkeztutako argudio nagusia: “Bereziki kezka sortzen dute A-l5eko 162. irteeraren inguruan eta GI-3722 errepidean aurreikusitako gurutzagune berriek ekar ditzaketen arriskuek, oinezkoen zein txinindularien segurtasunean izan dezaketen eraginagatik. Horregatik, uste dugu beharrezkoa dela proiektua berriro aztertzea, segurtasun irizpideak lehenetsiz eta, aldi berean, Plazaolaren trazadura historikoaren balioa eta Lurralde Plan Sektorialean jasotako irizpideak kontuan hartuz”.

2026/10/21
Batzar Nagusietan, Jasangarritasun Batzordean, EH Bilduk aurkeztutako proposamena atzera bota eta EAJ-PNVk eta PSE-EE alderdiek aurkezten duten osoko zuzenketa onartzen da.


2026/10/21
Urnietako EH Bilduk EAJ-PNVren eta, bereziki, alkatearen jokabidearekin kritiko agertzen den idatzia plazaratzen du (goian, irakurgai).

2026/10/28
Urnietako EAJ-PNVk bere hausnarketa helarazten dio Aiurri astekariari (goian, irakurgai). Urnietako udalbatzaren erabakia muturreraino defendatzeko prest dagoela dio alderdi jeltzaleak.

Bideo-sorta zabala webgunean

















AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Aurtengo saridunak, elkarrekin, Bastero Kulturgunean, astearte iluntzean. AIURRI

Ipuin eta gutun onenak

Martin Ugalde ipiuin eta gutun lehiaketaren sari banaketa ekitaldia egin zuten astearte arratsaldean, Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan. Ohi bezala, aipagarria izan zen Udal Musika Eskolako eta Katramila antzerki taldeko gaztetxoen partaidetza

Xabier Lasa ANDOAIN

1. maila (10 eta 11 urtekoena)

- Finalistak: *Jokin eta haizearen bidaia* (Iraia Arribillaga Ivanova); *San Juanen misterioa* (Kattalin San Sebastian Perez); *Migel Patata* (Irai Jauregi Hidalgo); *Hiltzaile bere horretan* (Adei Zubeldia Bengoetxea); *Haizearen ahotsa* (Enzo Ormazabal Moreno); *Espaziora bidaiatzen* (Ane Etxezarreta Jauregi).
- 1. saria: *Haizearen ahotsa* (Enzo Ormazabal Moreno). Arrazoiak: "Misterio giroa du eta tentsioa azken unera arte mantentzen du. Bukaera borobila du".
- 2. saria: *Jokin eta haizearen bidaia* (Iraia Arribillaga Ivanova). Arrazoiak: Hasiera oso polita du, ipuin baten hasiera, baina baita ere naturaren inguruan ondo dokumentatua dago. Abentura zentzua oso garatua dauka".

2. maila (12 eta 13 urtekoena)

- Finalistak: *Aneren arimaren indarra* (Laida Bueno Artetxe); *Misterioz beteriko heriotza* (Araitz Azpiroz Irulegi), *Greenfordeko basoa* (Euri Zubizarreta Rodriguez); *Ander kanpaldian* (Liher Fernandez Letamendi).
- 1. saria: *Aneren arimaren indarra* (Laida Bueno Artetxe). Arrazoiak: "Ideia poetikoa, oso klasikoa dauka, Hasiera oso polita dauka. Garapena oso orekatua eta joskera polita du. Hasierako deskripzioa erakargarria du, adin horretarako ez ohikoa".
- 2. saria: *Misterioz beteriko heriotza* (Araitz Azpiroz Irulegi). Arrazoiak: "Gaur egungo hizkuntza erabiltzen du, ipuina eta kronika batzen dituena. Elkarrizketaren bidez garatua".

I. GUTUN LEHIAKETA

1. maila (14 eta 15 urtekoena)

- Finalistak: *Begirada batek bizitza alda diezazuke* (Inge Fernandez Letamendi); *Inork ez zuen horrelakorik espero* (Leire Rodriguez Nicolas); *Aitormen gutuna* (Libe Arruti Etxabe); *Irakurle ezezaguna* (Haizea Alustiza Aizpuru).
- 1. saria: *Irakurle ezezaguna* (Haizea Alustiza Aizpuru). Arrazoiak: Gai unibertsal bat erabiltzen duelako, hain zuzen, naufragioarena. Heriotzaren aurrean ze jarrera hartu planteatzen duelako".
- 2. saria: *Aitormen gutuna* (Libe Arruti Etxabe). Arrazoiak: Puri-purian dagoen gaia kontatzen duelako, hain zuzen, Zeutako emigranteen egoera. Eta honen aurrean postura hartzen duelako, aldarri moduan".

2. maila: (16 eta 17 urtekoena)

- Finalistak: *Nortasunaren trenistripua* (Marwa Zarouali); *Heriotz atetik gutunak* (Iker Truchuelo Fernandez); *Oroitu nazazun* (Aiora Otamendi Baltasar).
- 1. saria: *Nortasunaren trenistripua* (Marwa Zarouali); Arrazoiak: "Tonu existentzialista mantentzen eta identitatearen arazoa planteatzen duelako. Barne-krisi egoera batean deskripzioa egin eta kanpo-krisi egoera batekin lotzen duelako. Gutuna ondo idatzia eta hizkuntza zehatza eta egokia erabiltzen duelako".
- 2. saria: *Oroitu nazazun* (Aiora Otamendi Baltasar). Arrazoiak: "Egoera bizitzera eramaten zaituen errealismo gordina erabiltzen duelako. Gutuna hasteko modu originala daukalako, lehenengo hitzekin eta kolpe batez gaia mahai gainean jartzen duelako".



"Nekearen teoria" erakusketaren muntaia-lana, Bastero Kulturgunean. AIURRI

Erakusketa berria zabalduko dute Bastero Kulturgunean

"Nekearen Teoria" erakusketa kolektiboa, azaroaren 12an hasita ikusgai

Erredakzioa ANDOAIN

Ostegun arratsaldean abiatuko da erakusketa berria Bastero Kulturgunean. Margolanen lekukoa hartuko du argazkilaritzak, eta Agorretarena bakarkakoa erakusketa bazen, atzetik datorkiona erakusketa kolektiboa izango da. "Nekearen teoria" izenekoa, honakoa da sustatzaileen ildo nagusia: "Nekea izendatzea ez da keinu terapeutiko edo sinboliko bat, posizio-hartze bat da. Hausnarketa hori oinarritzat harturik, kide bakoitzak bere interpretazio artistikoak garatu ditu argazkilaritzaren disziplina ezberdinak aurkeztuz".

Eta nortzuk dira erakusketarako batu diren hamabi artistak? Punto de Catastrofe eta Gu Argazki Taldea izeneko kolektiboak. Haien guztien artean badira bi andoaindar: Maddi Trutxuelo Garcia eta Rosa Zozaya.

Argazkia modu irekian adierazteko bitarteko gisa erabiltzen duten hamabi pieza ikusgai izango dira. Tartean, collage-a, fotomuntaia eta abar.

Eusten zaionaren eta kolapsatzear dagoenaren artean

Erakusketa martxan jartzeko argudioen artean, honako hau adierazi dute: "Erakusketak atalase kritiko batean kokatzen du nekea: oraindik eusten zaionaren eta kolapsatzear dagoenaren artean. Tarteko espazio horretan, pertzepzioa aldatu egiten da, arreta zatitu egiten da eta ingurunearekiko lotura ahuldu egiten da. Ez da estimulu falta, esperientzia osoa eragozten duen saturazioa baizik. Orduan, alienazioa ez da hautapen indibidual gisa agertzen, baizik eta bizitza gertatzen eta kudeatzen den esparruaren egiturazko ondorio gisa".

andoaINDARRA euskaraz

Behobia-Donostia lasterketako sailkapenak

ATLETISMOA Andoaindar eta urnietar ugari irten ziren Behobia-Donostia lasterketan. Sailkapenari erreparatuta, Javi Menta andoaindarrak bolada onari eutsi eta Top10 egin zuen helmugan



Pirata eta bozgorailua ohikoak dira lasterketan. BEHOBIA-DONOSTIA

Erredakzioa ANDOAIN

Lasterkari ugari irten zen igandean.

ANDOAIN

Javi Menta Martinez	01:04:02
Ander Lazcano Letamendi	01:06:15
Javier Lazcoz Dominguez	01:10:52
Iñigo Duarte Mijangos	01:13:32
Peio Manterola Pavo	01:13:58
Eduardo Portillo Rasero	01:17:36
Manuel Villegas Altimasberes	01:18:42
Patxi Azkue Amondarain	01:20:54
Garikoitz Alberro Nuñez	01:20:57
Julen Rivas Baztarrika	01:21:01
Jon Gil Alvaro	01:21:40
Iker Alkain Balda	01:22:47
Asier Dominguez Ramos	01:23:28
Eneko Bengoetxea Carrero	01:24:15
David Elvira Gainzarain	01:26:49
Josu Arregi Formentín	01:26:50
Aitor Miguel Fernandez	01:27:02
Martxel Lekuona Garcia	01:28:22
Iker Pernas Larrañaga	01:29:35
Damian Fernandez Pacini	01:29:47
Sergio Palacios Mendez	01:31:12
Aitor Collantes Gutierrez	01:31:55
Daniel Gonzalez Otero	01:32:33
Roberto Salgado Larraza	01:33:01
Ion Jauregui Artola	01:34:20
Sebastian Alejo Bianchi	01:34:29
Unai Martinez Beloki	01:35:49
Pablo Ortega Ramos	01:35:53
Richar Huerta Martin	01:36:32
Asier Extremera R.Eguino	01:36:33
Igor L. Arregui Alicostes	01:36:33
Mikel Collantes Ibañez	01:37:03
Aritz Garcia Alonso	01:37:04
Ander Setien Iguaran	01:37:37
Eneko Idigoras Eizaguirre	01:37:51
Beñat Gaston Etxezarreta	01:38:04
Andoni Etxezarreta	01:38:05
Estibez Hernandez Muñoz	01:38:22
Patxi Nieto Gaztelu	01:38:41
Almudena Carvajal Noriega	01:38:46
Xabier Elizetxea Lopez	01:39:43
Iker Telletxea Iriarte	01:39:58
Oñatz Gonzalez Usarralde	01:39:59
Iban Barrutia Uralde	01:40:04
Paula Sanchez Sanchez	01:40:05
Garazi Lopez Ubillos	01:40:08
Ion Gaztañaga Arrospide	01:40:28
Urko Arana Esnal	01:40:28
Maria Rengel Franco	01:40:57
Gustavo Marques Martinez	01:41:03
Xabier Arias Garcia	01:43:10
Ander Gaztañaga Godoy	01:43:17
Iñaki Etxeberria Barriola	01:43:18
Ibai Gurrutxaga Amondarain	01:43:50
Alain Palacios Lopez	01:44:36
Christian Guijarro Guijarro	01:44:37
Laida Jauregi Lizarralde	01:44:37
Oier Urreizti Plaza	01:45:04
Nura Ariztimuño Brau	01:45:10
Silvia Urbaneja Muñoz	01:45:14
Unai De Juan Urbaneja	01:45:15
Alejandro Hernandez Portero	01:46:08
Natxo Castro Nuñez	01:46:36
Oier Zabala Martin	01:47:06
J.Manuel Hernandez Da Silva	01:47:38
Koldo Gonzalez L. Sabando	01:48:04
Maider Arabaolaza Aguirrezab.	01:49:10
Iñaki Bengoetxea Carrero	01:49:25
Mikel Reguillaga Yubero	01:49:31
Alberto De Lucas Sanchez	01:49:41
Joaquin Gonzalez Garcia	01:49:52
Silvia Aguirre Franco	01:50:04
Mikel Sanchez Valero	01:50:07
Miriam Lasel Ozcariz	01:50:17
Nekane Minguez Villanueva	01:50:45
Alex Hernandez Merchan	01:50:53
Alberto Martin Del Rio	01:51:02
Alex Baz Uranga	01:52:31
Ainhoa Urcola Alcala	01:52:34
Javier Oruezabala Iraola	01:53:00
Aritz Caballero Amas	01:53:03
Nagore Alkorta Jauregui	01:53:03
Maialen Elizondo Goikoetxe.	01:53:03
Maialen Igarategui Escudero	01:53:04
Aitor Garcia Zalacain	01:54:55
Irati Amondarain Otaegui	01:56:14
Alex De Lucas Sanchez	01:56:51
David Frutos Raposo	01:56:52
Hipolito Barreña San Juan	01:57:04
Iñaki R.Larrinaga De Rojas	01:57:47
Ibai Ruiz De Larrinaga Tome	01:57:47
Nekane Zabala Iguaran	01:58:11
Kevin Arroba Gavilanez	01:58:52
Ronny Arroba Gavilanez	01:58:52
Lucas Martin Eceiza	01:59:44
Alvaro Martin Ortega	01:59:45
Uxue Mayoz Echeverria	02:02:13
Clara Hernandez Urbano	02:02:51
Ander Huici Salaberria	02:03:42
Virginia Ciganda Muriel	02:07:04
Ander Olasagasti Galarraga	02:08:46
Pedro Pablo Sanchez Diaz	02:09:31
Maixabel Iribarren Ezama	02:09:43
Alejandro Conde Herrada	02:12:05
Julen Azpiroz Roca	02:13:11
Antxon Ubiria Bergara	02:15:36
Juan Carlos Solana Vecino	02:17:04
Eneko Peñalvo Domínguez	02:20:09
Ane Vívoras Rodiño	02:33:51
Martin Askarai Otamendi	02:46:43

URNIETA

Ander Urruzola Labaka	01:14:36
Unai Lizeaga Apaolaza	01:15:37
Paul Gallo Arretxe	01:17:54
Jon Goñez Ortuñez	01:17:56
Igor Arruti Salgado	01:19:02
Xabier Ansa Urruzola	01:22:37
Iosu Gomez Manterola	01:23:00
Markel Lecea Rojas	01:23:10
Aitziber Martin Nicolas	01:24:12
David Sierra Salamanca	01:25:11
Inhar Oyarzabal Ostolaza	01:26:09
Eneko Ramirez Gonzalez	01:26:25
Ander Zubizarreta Ansa	01:27:14
Ane Arruti Loyarte	01:27:14
Ibai Garmendia Barrenechea	01:28:24
Ander Paco Garcia	01:29:03
John Sanchez Sanchez	01:30:57
Saioa Martinez Fonseca	01:31:16
Oscar Pavon Vela	01:31:40
Luis Alamo Olive	01:32:47
Sergio De Pablo Del Olmo	01:33:07
Victor Rodriguez Del Alamo	01:33:15
Mikel Garmendia Irazusta	01:33:45
Raul Fradejas Hernandez	01:33:46
Aitor Amigo Del Alamo	01:35:09
Sergio Odriozola Perianes	01:36:49
Eneko Biain Comendador	01:37:00
Celia Fernandez Gonzalez	01:37:26
Ionut Cojocaru	01:38:09
Bego Villas Miguel	01:39:03
Asier Lozano Fernandez	01:39:41
Aitor Pecharroman Campo	01:41:49
Maite Galfarsoro Perez	01:42:48
Egoitz Alkain Ulazia	01:43:18
Jose Luis Romero Martin	01:44:19
Iosune Larrayoz Agote	01:44:25
Arixen Unanue Usabiaga	01:44:51
Uxue Osa Bengoechea	01:44:52
Jokin Goikoetxea Yarza	01:45:05
Iosu Lopez Niño	01:45:15
Unai Albeniz Prieto	01:45:17
Ane Marin Ibañez	01:45:23
Mikel Artola Pagola	01:45:24
Oier Jimenez Urdangarin	01:45:42
Aimar Martin Larrea	01:45:42
Ion Koldobika Iribar Dieguez	01:46:20
Mikel Esnaola Molano	01:46:47
Jonathan Lopez Infante	01:47:49
Paula Lopez Pereira	01:48:19
Urko Lozano Fernandez	01:50:00
Ane Etxeberria Izagirre	01:50:08
Miguel Lajas García	01:50:30
David Cuenca Gallego	01:51:43
Ane Urkia Unanue	01:51:58
Beatriz Del Olmo García	01:53:16
Maria Salaberria Telleria	01:55:45
Nerea Salaberria Telleria	01:55:46
Uxue Salaberria Telleria	01:55:46
Oihana Rebollar Nuñez	01:57:41
Maider Iriberri Mugica	01:58:21
Vicente Carmona Sanchez	01:58:41
Mariaroman Revuelta	01:58:53
Oihane Nazabal Perurena	01:59:14
Pedro Arroyo Tamayo	01:59:42
Enrique Campos Jimenez	01:59:58
Alex Cobo Martin	02:00:31
Oihana Mellado Anso	02:00:35
Amaia Mellado Anso	02:00:36
Lander Vidente Urdangarin	02:01:27
Ivan Sevilla Elustondo	02:01:40
Benjamin Rodenas Gallardo	02:04:20
Pablo Fierro Jimenez	02:05:20
Leire Atxaga Robles	02:08:37
Steven Romero Barrera	02:08:49
Silvia Garcia Garrido	02:11:46
Lide Labaka Salas	02:13:55
Joseba Labaka Eskudero	02:13:55
Almu Salas Andrade	02:13:56
Ana Rodriguez Cantero	02:14:52
Jon Jauregi Zubeldia	02:16:07
Leire Sanchez Ruiz	02:16:32
Javier Cea Del Cura	02:16:55
Xare Esnal Martiarena	02:21:23
Xabi Abad Etxaniz	02:21:31
Eloy Gonzalez Pastrana	02:31:03
Naia Vilches Gonzalo	02:36:36
Patxi Cuenca Navas	02:37:32
Norman Cuenca Gallego	02:37:33

Patinatzaileak

Nerea Hernandez Perez	01:03:37

ITURRIA: WWW.BEHOBIA-SANSEBASTIAN.COM



Aurreko asteburuan egin zen txapelketa solidarioa. GOIBURU GOLF KLUB

Golf Txapelketa Solidarioa, Andoaingo Goiburun

GOLFA Ehun partaide batu zituen ekimen solidarioaren XXI. edizioak

Erredakzioa ANDOAIN

Aurreko larunbatean Minbiziaren Aurkako Gipuzkoako Elkartearen aldeko XXI. Golf Txapelketa Solidarioa ospatu zen Goiburu Golf Klubean, 100 bat lagunen parte-hartzearekin.

Klubak eskertza adierazi du: "Aurtengo edizioan ere, parte-hartzaileek golfaz eta giro ederraz gozatzeko aukera izan zuten, kirolaz harago doan helburu solidario baten alde elkartuta.

XXI. ediziora iritsi izanak agerian uzten du ekimen honek urteetan zehar izan duen jarraipena, baita parte-hartzaileek eta laguntzaileek elkartasunarekin duten konpromisoa ere.

Andoaingo Goiburu Golf Klubak eskerrak eman nahi dizkie txapelketan parte hartu duten guztiei, babesleei eta antolakuntzan lagundu duten kideei, beste urte batez ekimen hori posible egiteagatik.



AIURRI

Laba Gravel, bicis.net gunean

Laba Gravel 2027ko maiatzaren 29an irtengo da Andoaindik, eta dagoeneko bici.net egutegian dago. Estatuko eta Andorrako txirrindularientzako doako webgunea da: 1.101 ibilbide ageri dira GPX eta profilarekin, eta 147 portu seinaleztatuta. Gipuzkoan, 29 ibilbide eta 16 portu. Proben egutegia ikusgai da: 190 etortzeke, horietatik 22 EAEn.



Iginitz. AIURRI

Mendi Astea, ostiralean hasita, Andoainen

MENDIZALETASUNA

Azaroaren 13tik 22ra, hitzordu-sorta, Euskalduna MTren eskutik

Erredakzioa ANDOAIN

Honatx, aurtengo egitaraua:

Azaroak 13, ostirala

"Manaslun barrena", Aitor Iginitz. Bastero, 19:00.

Azaroak 17, asteartea

"Nire mugen gainetik", Josu Merino. Euskalduna MT, 19:00.

Azaroak 18, asteazkena

Bazkideen batzar orokorra. Euskalduna MT, 19:00.

Azaroak 19, osteguna

"Baruntse mendiaren deia", Xiril Alvarez. Euskalduna MT, 19:00.

Azaroak 22, igandea

Mendi irteera (Arano-Oianume) eta bazkaria, Oianume jatetxean.



Baruntse mendia. WIKIPEDIA



Gorengo mailako emakumezkoak. AIURRI

Bolada onean dira Gorengo mailako Euskalduna eta Urnieta

FUTBOLA Lau taldeek garaipena lortu zuten aurreko asteburuko jardunaldian

Erredakzioa ANDOAIN

Hirugarren garaipena jarraian lortu zuen Euskaldunak, aurreko asteburuan. 2-1 garaitu zuen Soraluze Ubitarten jokatu zen partidan eta, bolada on horri esker, sailkapenaren bigarren postuan da. Igande honetan 9. jardunaldiari dagokion partida jokatuko dute Zarautzen, arratsaldeko 15:00etan hasita. Zarautz B taldeak ez du oraino punturik lortu, aurreko 8 partidak galdu baititu. Euskaldunak 3 puntu gehiago lor ditzake, beraz.

Urnietak, bere aldetik, puntuak pilatzen jaraitzedu. Lau partida dira galdu gabe eta, aurreko asteburuan, Trintxerpe taldea garaitu zuen etxeko partidan (2-0). Gorengo mailako 1. multzoko sailkapenean 5. postuan da. Datorren larunbatean Zizurkilgo Elbarren futbol zelai estuan jokatuko du, arratsaldeko 16:00tan hasita.

Emakumezkoak

Emakumezkoen Gorengo Mailan, Euskalduna egiten ari dena ez ohikoa da: 6 partida irabazi ditu, 29 gol sartuz eta bakar bat ere jaso gabe. Datu horiekin, ezinbestean, 4. multzoko lidertzan da. Denboraldiaren lehen txanpa honetan, behintzat, nagusitasun handia erakusten ari da. Aurreko asteburuan 0-3 irabazi zuen Segura-Aizkorri taldearen zelaian. Larunbat honetan Ubitarten jokatuko du, arratsaldeko 17:00etan hasita, sailkapenean atzetik datorkion Intxurreren aurka.

Hilabete eta gero, garaipena eskuratu zuen Urnietak. Hauek ere etxetik kanpo, Intxaurdi D taldearen zelaian (0-1). Hiru puntu gehiago lortzeko aukera dute, asteburu honetan, etxeko partidan. Usurbil B taldea izango da aurkaria arratsaldeko 15:30ean hasiko den partidan.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ERAKUSKETA

ANDOAIN Nekearen teoria
Erakusketa kolektiboaren irekiera-ekitaldia.
Azaroak 12, osteguna.
18:30, Bastero Kulturgunea.

ANTZERKIA

ANDOAIN "Lamiaren ispilua"
Kattalinen eta bere lagunen abentura magikoa.
Azaroak 15, igandea.
12:00, Bastero Kulturgunea.

URNIETA Munstro arrosa
Haur eta familientzako antzezpena.
Azaroak 22, igandea.
12:00, Sarobe.

URNIETA Me too
Ainhoa Aierbe eta Tessa Andonegi.
Azaroak 29, igandea.
19:00, Sarobe. Dohainik.

HITZALDIA

ANDOAIN Oroimen historikoa
Aitor Azurki eta Aitzol Arroyo adituen hitzaldia.
Azaroak 18, asteazkena.
19:00-20:00, Bastero Kulturgunea.

LIBURUGINTZA

URNIETA Liburu Txiki kluba
Udalaren ekimena.
Azaroak 13, ostirala.
17:30, Xoxokako eskola zaharra.



Ortzaikako karobiaren piztuera eguerdiko 12:00etan izango da.

ANDOAIN Burdina elkartearen urteurreneko-ekitaldia
25. urteurrena ospatuko dute larunbat honetako ekitaldian. Andoaingo elkarteak lan ordainezina egin du, mende laurden batean ondarea berreskuratzen.
Azaroak 14, larunbata. 12:00, Ortzaikako karobia.

MUSIKA

ANDOAIN Kontzertuak
Sabdariffa eta DJ AFV taldeak.
Azaroak 13, ostirala.
Andoaingo Gaztetxea.

Streetwise eta Ostikoka taldeak.
Azaroak 14, larunbata.
Andoaingo Gaztetxea.

AZOKA

ANDOAIN Udazkeneko azoka
Larramendi Bazkunak antolatuta.
Azaroak 14, larunbata.
Egun osoan, Goikoplazan.

MENDIA

ANDOAIN Mendi Astea
Euskalduna MT taldearen hitzordu guztiak, 13. orrialdean.
Azaroak 13-22.

URNIETA Ikus-entzunezkoak
"Gasherbrum II", Txetxu Lete.
Proiekzioa eta solasaldia.
Azaroak 26, osteguna. 19:30, Sarobe.

"Coincidencias Patagónicas", Tasio Martin.
Proiekzioa eta solasaldia.
Azaroak 27, ostirala. 19:30, Sarobe.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Ruega por nosotras
Azaroak 14, larunbata. 19:30.
Azaroak 15, igandea. 19:30.

Azaroak 16, astl. 17:00, 19:30.

Marsupilami
Azaroak 14, igandea. 17:00.
Azaroak 15, igandea. 17:00.



FITXA TEKNIKOA ETA SINOPSIA

Ruega por nosotras
Zuzendaria: Daniel Monzon. **Aktoreak**: Zoe Bonafonte, Manuela Calle, Adelfa Calvo, Maria Cerezuela, Carla Domínguez, Maria Gandiaga, Malena Gutierrez, Belen Cruz, Bea Segura, Xavi Saez, Shiara Fernandez. **Herrialdea:** Espainia (2026). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Iraupena:** 136 m. **Generoa:** drama.



Emakumeenganako jazarpena

1974an, Ana 19 urteko neska bartzelonarra Emakumea Babesteko Patronatuaren esku utzi zuten, eta Madrilgo mojek zuzendutako erreformatorio batera eraman zuten. Han, diziplina-erregimen basati bat jasaten du, eta bizirik irauten saiatuko da, bere egoera berean dauden beste neska batzuen adiskidetasunean kontsolamendua eta babesa bilatuz.

Kuadrillen eguna Urnietan

Azaroaren 21a buruan dute Urnietako gazte askok, larunbat horretan Kuadrillen Eguna ospatuko baita. Egitarauaren xehetasunen berri ematen hasita daude antolatzaileak: goizez, bi talderen arteko apustua egingo dute. Eguerdiko 12:00ak aldera, poteo musikatua. Segidan, bazkaria, jolasak, elektrotxaranga eta, gauez, bi disko-jartzaile.



AIURRI

Urnietako udala



Aitor Mendiluze. BERTSOLARI TXAPELKETA

Aitor Mendiluze, finalerako bidean

"Bertsoa sentitzea da" abestu zuen andoaindarrak amaierako bertsoan, Gernikako saioan

Erredakzioa ANDOAIN

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako hirugarren finalaurrekoan andoaindarrak jaso zituen puntu gehien. Hala, Donostiako finalaurrekoan ariko da azaroaren 21ean.

Gernikako saioan Agin Laburu, Joanes Illarregi, Ane Labaka, Aner Peritz eta Aitor Bizkarra kantari aritu ziren Mendiluzerekin batera.

Bertsoa.eus webgunean Igotz Alkortak laburbildu zuen Mendiluzeren partaidetza: " bertsolaritza ez da matematika eta gaur Mendiluzek poto egin du. Bakarkakoan maisu izan ohi da andoaindarra baina lehen bertsoan izu hitzarekin poto egin du. Dena den, hamarreko txikian eman dio akatsari buelta zailena zirudien paperetik gainera. 713 punturekin finalera sartzeko bigarren saio on bat egin beharrean da".

Finalaurrekoetako lehenengo itzuliko azken saioa larunbat honetan izango da, azaroak 14, Miarritzeko Jai Alain. Kantuan ariko diren bertsolariak Andoni Rekondo, Julio Soto, Maddalen Arzallus, Maddi Ane Txoperena, Oier Etxeberria eta Sustrai Colina izango dira.

Euskal Herriko Bertsolari txapelketa azken txanpan sartu da.



Artxiboko irudia. AIURRI

Santa Zezilia eguna, Andoainen eta Urnietan

Musika emanaldiak egingo dituzte kalean, udalerri bakoitzeko udal musika eskolen partaidetzarekin

Erredakzioa ANDOAIN

Musika kalera aterako dute datozen egunotan:

Andoain: Azaroak 19, osteguna

"Musikalean" izenburupean, Santa Zezilia eguneko ospakizuna egingo du Andoaingo Udal Musika Eskolak. Datorren azaroaren 19an izango da, ostegunarekin, arratsaldeko 17:15etan hasita. Hiru kokapen ezberdin aurreikusi dituzte: Plaza Morean, haizezko eta perkusio taldeak izango dira lehenak; 17:30ean, Bastero parean, akordeoilariak eta txistulariak; eta, 17:50etan, biolin, flauta, gitarra eta perkusio taldeak Juanita Alkain plazatxoan. Amaitu aurretik, arratsaldeko 18:00etan, denek elkarrekin "Musikalean" pieza joko dute Juanita Alkain plazatxoan. Txokolate beroarekin amaiera emango diote saioari.

Urnieta: Azaroak 18, asteazkena

Bezperan, Urnietan, Lourdes Iriondo Musika Eskolak Santa Zezilia eguna ospatuko du. Azaroaren 18ko kalejira, herriko plazatik abiatuko da. Adarra Jo Txarangarekin eta Kantazaunekin batera honako ibilbidea egingo dute: San Joan plaza, Zubitxo plaza, Etxeberri plaza eta Lourdes Iriondo Musika Eskola.

Gazte Lokalaren lehiaketa

26. urteurrenera iritsi da Gazte Lokala. Ohikoa denez, ekitaldiak iragartzeko marrazki lehiaketa antolatu dute. A4 tamainan, orrialde zurian aurkeztu behar da proposamena. Genero, kultura eta gaitasunen aniztasuna kontuan hartu behar dute parte-hartzaileek. Lanak aurkezteko epea azaroaren 15ean amaituko da. Saria ederra da: bizikleta.



AIURRI



PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

2026ko Boluntariotza Saria, Caritas Gipuzkoari

Pertsona zaurgarrienen alde egindako lanagatik eta urteetako konpromisoagatik sarituko du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Saria Caritas Gipuzkoaren 60. urteurrenarekin bat dator



Aldundiko buruzagiak Caritas Gipuzkoako kideekin batera. GFA

Erredakzioa ANDOAIN

Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuak 2026ko Gipuzkoako Boluntariotza Saria emango dio Caritas Gipuzkoari, "egoera zaurgarrian dauden pertsonekiko konpromisoa eta boluntario-sare zabalaren bidez Gipuzkoako gizarteari egiten dion ekarpena aitortzeko".

Saria datorren abenduaren 1ean jasoko du. Aldundiak ohar bidez emandako informazioaren arabera, 2025ean, Caritas Gipuzkoak 861 boluntario izan zituen, eta horietatik 152 lehen aldiz batu ziren erakundera. Boluntario horien inplikazioari eta talde profesionalen lanari esker, erakundeak pobrezia edo gizarte-bazterkeria egoeran zeuden 4.065 etxebizitzatako 10.183 pertsonari lagundu zien. Gipuzkoako boluntarioek hainbat arlotan jarduten dute, hala nola lehen harreran, entzutean eta laguntzean, hezkuntza-programetan, etxebizitzaren arloan, gizarteratze eta laneratze-prozesuetan eta komunitate-ekintzan.

Caritas Gipuzkoaren 60. urteurrena

Erakundea 1966an sortu zen, eta sei hamarkada hauetan gizartearen bilakaerara egokitu du bere jarduna, zaurgarritasun-egoera handienak bizi dituzten pertsonekiko konpromisoari eutsiz. Lurraldean duen presentzia 84 herri eta auzotako parrokia-Caritasen bidez egituratzen da; horri esker, komunitateekin harreman estua du eta ingurune bakoitzeko beharrei erantzuten die. Epaimahaiak bereziki baloratu ditu boluntario-sarearen zabaltasuna, boluntario berriak erakartzeko gaitasuna eta parte hartu nahi duten pertsonei eskaintzen dien harrera-, prestakuntza- eta laguntza-eredua.

